

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Hasiera batean lokala alokairuan edukiko dugu, negozioaren jarduera martxan jartzeko eta hasierako inbertsioa ahalik eta gehien murrizteko helburuarekin. Hala ere, epe ertain edo luzera begira, negozioak espero bezala funtzionatzen badu eta etekinak egokiak badira, lokala erostea serio pentsatuta daukagu, egonkortasuna eta etorkizunerako segurtasuna lortzeko. Horrez gain, enpresaren behar operatiboak asetzeko, enpresako kotxe bat edukiko dugu, eguneroko kudeaketarako eta beharrezko joan-etorrietarako erabiliko dena.

Lokalean instalatuko diren makinei dagokienez, bezeroei aisialdi-eskaintza zabala eta erakargarria eskaintzeko asmoz, honako hauek izango ditugu: 3 tragaperras, 1 erruleta, 3 telebista kirol-emanaldiak ikusteko, 2 billar-mahai, 1 dardo-makina, eta apostu-makinei dagokienez, guztira 4 makina jarriko dira, marka desberdinetakoak izanik (1 Codere, 1 Kirolbet eta 1 Retabet), eskaintza anitza bermatzeko. Horrez gain, aisialdi alternatiborako 1 mahai-hockey ere jarriko da. Azkenik, giro soziala eta erlaxaziorako espazioa indartzeko, 12 cachimba jartzea aurreikusten dugu, bezeroen esperientzia ahalik eta erakargarriena izan dadin.

